

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Gure zerbitzua aurrera eramateko ondoko jarduerak beharrezkoak izango dira:

1. Proiektua abian jartzeko bazkide bakoitzak kapital minimo bat ipini beharko du. Diru horrekin ordenagailuak, wifi/konpainia telefonikoa, lokala, plataforma egiteko eta mantentzeko, gure soldatak eta publizitate kanpainak ordainduko ditugu.
2. Gure proposamena onartu nahi duten irakasle partikularrak eta akademiak bilatuko ditu.
3. Bezeroei dagokienez, ikasgai batzuetan laguntza behar duten ikastetxeetan ikasle bila joango gara, eta hori eskoletan, ikastetxetan, sare sozialetan eta abarretan utziko dugun publizitatearen bidez lortuko dugu.
4. Komunikazioari dagokionez, iragarkiak sortuko ditugu sare sozialetan jartzeko eta hainbat kontu sortuko ditugu Instagram-en, Twitter-en eta Tik Tok sarean, gure enpresaren komunikaziorako eta propagandarako.
5. Webgune bat sortuko dugu, jendeak zalantzak argitzeko eta eskaintzen dugunari buruzko informazioa lortzeko aukera izan dezan, eta esteka batzuk utziko ditugu gure sare sozialak interesatzen zaizkien jendearentzat. Sare sozialak ere erabiliko ditugu eskaintzen ditugun zerbitzuei buruzko edozein zalantza argitzeko.
6. Iragarkiei dagokienez, iragarkiak jarriko ditugu Spotify, Tik Tok, Instagram, Twitter eta Youtube bidez.
7. Telefonoz ere eskuragarri egongo gara edozein zalantza argitzeko
8. Aplikazioa eta Webgunea egingo duen enpresa bat kontratatuko dugu.